

Fundación BilbaoArte



ARTE PROIEKTUAK GAUZATZEKO BEKA DEIALDIA 2021

MODALITATEA: ESTUDIO LAGAPENA

FUNDACIÓN BILBAO ARTE FUNDAZIOAK, kultura indartu eta arte sormena bultzatzeko duen grinan, BILBAO BIZKAIA KUTXA BBK FUNDAZIOAREKIN elkarlanean arte proiektuak gauzatzeko ondorengo beka deialdia argitaratu du.

Fundación Bilbao Arte Fundazioaren ezaugarriak direla eta (honen instalazio teknikoak eta lantalde profesionala) deialdira aurkezten diren proiektuek Bilbao Artek eskaintzen dituen baliabide eta aukera tekniko nahiz profesionalei probetxu ateratzeko egokitasuna azpimarratu nahi da.

Zentzu honetan, Fundazioko ekipamendu tekniko eta bertako teknikoen aholkularitza eta kolaborazioa erakusten duten proiektuek Bilbao Arte Fundazioaren instalazio nahiz lantalde profesionalaren beharra erakusten ez duten beste artisten proiektuekiko lehentasuna izango dute.

Ondorioz, Egoitza beka aktibo hauetan bereziki baloratuak izango dira euren aurkezpenean Teknologia berriak, Media Lab, Eskultura eta Serigrafia eta grabatuko lantegien erabilera jarrai bat dokumentatzen duten lanerako egitasmoa eransten dutenak.

(Web orria bisitatu Bilbao Artek aukeratutako proposamenen zerbitzura jartzen dituen teknologia eta baliabideen inguruko informazio zehatza jasotzeko).

GAI INTERESGARRIAK

- Beka hauek jasotzea ez da bateraezina mantenua, dietak, bidaiak edo Bilbao Bizkaia Kutxa BBK Fundazioaren beka barneratzen ez dituen bestelako gastuentzako jaso daitezkeen bestelako diru laguntzekin. Artista laguntza jasotzen den epean Bilbotik kanpo egotea esdatzen duten egonaldi artistikoak baztertuak gelditzen dira.

- Laguntza hauen izaerak arte plastikoekin harremana duen edozein diziplina barneratzen du, bakarkakoa nahiz taldekakoa, deialdi honen epeen barruan gauzatua izango den konpromisoa izango duelarik.
- Edozein arrazoi dela egonaldiaren epean proiektua amaitzeko konpromisoa betetzen ez bada Fundación Bilbao Arte Fundazioak honen inguruan egokia iruditzen zaion erabaki bat hartzeko eskubidea gordetzen du. Erabaki hau apelaezina izango da.
- Deialdi honetara ibilbide artistiko eta akademiko sinesgarri bat bermatzen duten edozein adin eta jatorriko pertsonak aurkeztu daiteke,
- azken hiru urtetan beka jaso dutenak edo hauek existitzen diren momentutik hiru deialdietan hautatuak izan direnak deialditik kanpo gelditzen dira.
- Aukeratutako proiektuentzat bi egonaldi epe baloratzen dira eta hau aurkezten diren proiektuen izen emate orrian azaldu behar da.
 - Sei hilabetekoak, bi epeekin:

urtarrila-ekaina

uztaila-abendua

(Eskatzaileak egonaldia egiteko nahiago duen epea edo berdina zaion adierazi beharko du, bigarren kasuan Fundazioak berak aukeratuko du bekaren egonaldiaren epea).

- Hamabi hilabetekoa, 2021ko urtarriletik aurrera.

EPAIMAHAI

Proiektuen aukeraketa Fundazioak honetarako hautatutako epaimahai batek egina izango da. Epaimahai honen osaketa Fundación Bilbao Arte Fundazioaren web orrian publikoki ezagutzera emango da honen erabakiaren publikazioa baino lehen. Honen erabakia apelaezina izango da.

BEKAREN BALDINTZAK

Beka hauek diru laguntza bat aurreikusten dute, Bilbao Arte Fundazioko aldi baterako lagatze espazio baten erabilerarekin batera.

Estudioen lagatze beka ez du soilik espazio hauen erabilera eskubidea ematen, zentroak produkzio lantegi ezberdinetan dituen gainontzeko azpiegiturak erabiltzeko aukera ere ematen du.

Bilbao Artek, bere instalazio ezberdinen erabilera errazteaz gain (web orria bisitatu Fundazioaren ekipamendu zehatza ikusteko), tailer ezberdinetako lan-talde teknikoaren partetik, behar tekniko ezberdinen aurrean, erantzun eta lagunduko den aholkularitza zerbitzu bat ezartzen du.

Gutxienez 12 eta gehienez 24 beka iragartzen dira. Bekadunek estudio bat izango dute eta honetaz gain produkzio gastuetarako 4.000 eurorainoko laguntza urte osorako proiektuentzako eta 2000 euroraino sei hilabeteko proiektuentzako.

BEKA JASOTZEN DUTEN PERTSONEN (FISIKOA EDO JURIDIKOA) KONPROMISOA.

Lagatze espazio / Estudio bat egokitzeak proiektua gauzatzeko onartutako epearen barruan honen erabilera jarrai bat suposatzen du.

Justifikatu gabeko ez egoteak eta/edo emana izan den erabilerarako estudioaren aprobetxatze faltak espazio eta diru laguntza honen galera automatikoa eragingo du.

Baliogabetze honek era berean **Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak** babestutako materialen erabilerari uko egitea suposatzen du, espazioaren erabilera uzteko momentu arte materialetan jaso den diru kopuruaren itzulerarekin batera.

3

Beka jasotzen duten pertsonen zera hitzematzen dute:

1. Bilbao Arte Fundazioaren arautegia bete.
2. Beka gauzatzen den epean eguneroko bizilekua Bilbo inguruan eduki.
3. Proiektua garatu eta bere lana indartzeko Fundazioak eskaintzen dituen tutore eta aholkulariekin elkar eragin.
4. Egonaldiaren amaieran memoria bat aurkeztu, proiektuaren lan edo pieza adierazgarri bat Bilbao Arte Fundazioaren bilduma publikora laga eta Ateak Zabalik Jardunaldien inguruan programatutako jardueretan parte-hartu (taldekako erakusketa, proiektuen aurkezpena, etbar.), Fundazioak laguntza hauek zabaltzeko antolatzen dituen aurkezpenetan kolaboratzearekin batera.
5. Egonaldia ikus-entzuneko lan batekin lotuta balego, Bilbao Arte izena kredituetan azaldu beharko da.
6. Bilbao Arteko ekipamendu eta espazioak erabiltzeko baldintzak onartu.

Oinarri hauek betetzeak artistak Fundazioak produziturik 2022. Urtean antolatuko diren 7 (gehienez) bakarkako erakusketen aukeraketa prozesuan parte-hartzeko baimentzen ditu. Erakusketa hauek, obra produkzioa, inaugurazio, promozio eta zabaltze gastuak eta artisten ordainsariak aurreikusten dituzte.

AURKEZTU BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

1. Garatu behar den proiektuaren dosierra, ondorengo atalekin:

- o Izen-emate fitxa.
- o 30 lerrotan laburtutako proiektuaren azalpena.
- o Bilbao Arteko instalazio eta baliabideen erabileraren kronograma.
- o Aurkezten den proiektuarekin harremana duten aurretik egindako lan, irudi eta bozetoak.
- o Merezimendu akademikoak eta profesionalak dituen Curriculuma.
- o Proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren materialen gastuen gora beherako aurrekontua (zergak barne). Aurrekontu horren totala, mugak finkatuta, izango da proiektuaren produkzioarentzat eginiko eskaerari emango zaiona.

Diru-laguntzaren osotasunaren %30a gainditzen duten ekipamendu erosketa, markoztatu, etbar. kontzeptu honetatik kanpo gelditzen dira .

Lanaren produkzioarekin lotutako bidaiak edo azpikontratazioak bezalako bestelako gastuek ezingo dute onartutako aurrekontu osoaren %50a gainditu.

Etxebizitzaren erabilera ere eskatzen dutenei gogorarazten zaie hau ere gastuen barruan aurkeztu behar dela.

2. Proiektuaren ulermena erraztuko duten edozein motako dokumentazio grafiko osagarria, katalogoak, bozetoak edo egokiak izan daitezkeen irudiak.

OSTATU LAGUNTZA

Fundación Bilbao Arte Fundazioak modalitate honetan beka jaso duten pertsoneri ostatu-egoitza beka eskatzeko aukera eskaintzen die, Fundazioaren artistekin partekatzen diren etxebizitzetan. 9 gehienez.

Egoitza ea eguneroko gastuak (segurua, ura, argia, gasa, wi-fia...), hilabeteko 200 eurotan estimatuak, jasotzen den bekaren kopurutik kenduak izango dira.

Gastu hau beka eskaeraren barruan materialen beharren inguruko aurrekontuaren orrian agertu beharko da. Hau dela eta, beka eskatzerako orduan, eskaerarekin datorren eranskinean ostatua eskatzeko arrazoiak eta beharrak zeintzuk diren argi eta garbi azaltzea beharrezkoa da.

Beka jasotzeak ez dakar zuzenean ostatua jasotzeko eskubidea, tokia mugatua denez hau jasotzeko aukera urte jakin horretan sortu daitekeen eskaera kopuru aldakorraren arabera izango baita.

Leku kopuru mugatua dela eta Fundazioak behar eta urruntasun arrazoiak arabera aukeratuko ditu eskaerak.

ESKAEREN AURKEZPENA

Dokumentazioa horrela aurkeztu daiteke:

- Eskura edo posta arrunt bitartez. Paperean mekanografiatua, kopia bakarra Din – A4 formatuan baita USB batean PDF formatuan.
- Posta elektronikoko bitartez: PDF artxibo bat (10 Mb. gehieneko) bidaliz convocatorias@bilbaoarte.org helbidera, gaiak eskatzen den bekaren modalitatea adieraziz.

Eskaera guztiak oinarrien publikaziotik 2020ko azaroak 6 bitarte (hau barne) bidaliko dira. Posta arrunt bitartez bidalitako eskaeretan zigilu-markaren data izango da hau onartutako epeen barruan bidalia izan dela legezkatuko duena.

5

Bilbao Arteko instalazioetan eskaera eskura aurkezteko epea arratsaldeko 20:00etan amaituko da.

Internet bidezko bidalketak, egun bereko 23:59ak arte.

Aukeratu ez diren proiektuen paperezko material osagarria egileak edo hauek baimendutako pertsonak jaso izan ahalko da 2021ko martxoak 31 arte. Data Honetatik aurrera suntsituak izango dira.

PARTE-HARTZAILEEN IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek Bilbao Arte Fundazioaren espazioetan informazioa zabaltzeko edo sustatzeko hartutako irudietan (argazkia, bideoa, etbar.) agertu daitezkeela onartzen dute, hau dela eta hauen erabilera baimentzen dute, agerikoak diren salbuespenekin eta bere ohore eskubidearen kontra erasoak izan daitezkeen erabilerekin, maiatzak 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohore Eskubidea, Intimitate Pertsonal eta familiarra eta Irudia Beraren Babes Zibilaren terminoetan izendatuak.

Aurretik aipaturiko eremutik kanpo eginiko beste edozein erabilera baimen honetatik espresuki kanporatua gelditzen da.

DATU BABESA

Parte-hartzaileek deialdi honetan emandako datu pertsonalak Fundación Bilbao Arte Fundazioaren titulartasuna duen fitxategian gehitzea onartzen dute, helburu horretarako Bilboko Urazurrutia kaleko 32. zenbakian helbideratua, deialdi hau kudeatzeko helburuarekin.

Sarrera, zuzenketa, indargabetze eta oposizio eskubideak bilbaoarte@bilbao.eus helbidera zuzenduriko posta elektronikoko bidez gauzatuko dira, *sarrera eskubideak* gaiarekin eta datuen titularrak sinaturiko gutun bat atxikirik. Jakinarazpenetarako helbide bat adieraziko da, NAN edo antzeko egiaztagiri baten kopiarekin batera.

OINARRIEN ONARPENA

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezte hutsarekin, oinarri hauek onartzen dituzte.